

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Unicornis Rhinoceros

PERTSIA, K.A. IV. MENDEA. Ctesias greziarra Artajerjes II.a erregearen medikua zen. Eta hari esker izan zen lehenengoz unikornioaren berri. Ctesiasek zioen Lurreko animaliarik indartsuena eta azkarrena zela, eta Indian zuela jatorria. Ile zuriko asto handia omen zen, burua gorria zuen eta begiak urdinak. Kopetan metro beteko adarra zuen. Medikua esanetan, adarra edalontzi modura erabiliz gero epilepsia saihestu eta pozoiz guztientzako babeska lortzen zen. Baina Ctesias ez zen inoiz Indian izan eta bere adarbakar hura lau espezieren arteko nahasketa asmatua baino ez zen: Indiako errinozeroa, Ekialde Hurbileko onagroa, Egiptoko antilopea eta rimua, Mesopotamiako hainbat erliebetan ageri den idia.

K.o. I. mendean, Plinio Zaharrak greziarraren haritik jarraitu zuen, hots, animalia ikusi ere egin gabe irudimenari eragin zion. Piztiak zaldiarena zuen gorputza, burua oreinarena, elefante hankak eta basurde buztana. Sekulako orroak botatzen omen zituen, eta bakartia eta oldarkorra zen.

Bibliaren jatorrizko bertsiotan *re'em* izeneko benetako animalia aipatzen da, desagertutako rimu idiari dagokiona. Baina geroago etorri ziren edizioetan animalia hau beste izaki batekin nahastu zuten. Grezierazko hainbat itzulpenetan *monokeros* moduan ageri zen. V. mendean San Jeronimok *Unicornis Rhinoceros* izenez itzuli zuen. Hortik aurrera unikornioa sinbolo kristau sakratuen artean hedatuz joan zen.



Erdi Aroan pentsatzen zuten emakume birjin bat parean ipiniz gero, adarbakarraren izaera arrisksua baretu egiten zela.

Legendak Erdi Aroan izan zuten unerik gorena. Unikornioa zaldi zuria zen, espiral formako adar luze eta bakarra zuena. Ustez indar izugarria bazuen ere, emakume birjina parean jarriz gero animalia maitakor eta arriskugabea bilakatzen zen. Horregatik piztia erakarri eta baretzeko neska gazteak eraman ohi zituzten emaitzarik gabeko ehizaldietara.

Unikornioa ez zen esistitzen. Baina ez dirudi xehetasun horrek garrantzi handirik zuenik. Haren adarrak botere magikoak zituela sinistuta zeuden eta Europako gorteetan eskariak gora eta gora egin zuten. Errege nahiz printzeek pozoituak izateko arrisku handia zuten, eta garesti ordaintzen zituzten ustez unikornioaren adarraz eginiko edalontziak. XVI. mendean erdialdean Veneziako Errepublikak 30.000 dukado eskaini zituen edalontzi bakar baten truke. Bada narbal izeneko zeta-zeto bat, adarra espiral formakoa duena; huraxe izan zen merkataritza iruzurgileen pagotxa.

Iruzurra laster eman zuten argitara, baina adarbakarrak irudimen kolektiboan bizirik jarraitu du. Hor dira, esaterako, Manuel Mujica Láinez-en eta Tracy Chevalier-en nobelak, edo Silvio Rodríguez-ek bere kantan galdutako unikornio urdina.

Hogeit urte bete dira Juan Eslava Galán-ek Planeta saria irabazi zuela *En busca del unicornio* lanagatik. Oporrak aitzakia ezin hobea dira zehaztasun historikoa eta dibulgazioa gutxik bezala uztartzen dituen andaluziar historialariren nobelari berriro heltzeko. ■

ARRASTOAK

ZINE HISTORIKOARI buruzko web berria du www.educahistoria.com atariak. www.cinehistoria.com helbidean filmeti buruzko artikulu zehatzak daude: Luis García Berlangaren *iBienvenido Mr. Marshall!*, Francok idatzitako nobelari oinarritutako *Raza*, Chaplinen *The Great Dictator*...



Filmeti buruzko bibliografia dago esku-ragarri. Gainera, film zatiak ikusteko aukera ematen duen bideoteka dago. Loturak, kronologiak eta hezkuntza baliabide praktikoak ere aurki daitezke orrialdean.

Izan ere, *educahistoria* atariko eduki guztiak bezalaxe, zine historikoari dagozkion hauek historia zale guztientzat dira, baina irakasleei daude bereziki zuzenduta.